



BEGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nabi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
 ☉ " Argizagi azken laordena.
 ● " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
 ☽ " Argizagi lehen laordena.

OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharila* 26^{an}; — HAOSTE, *baranthaila* 12^{an};
 — BAZKO, *martchoko* 30^{an}; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 5^{an},
 6^{an} eta 7^{an}; — SALBATORE, *maiatzeko* 8^{an}; — PHENTEKOSTE,
maiatzeko 18^{an}; — BESTABERRI, *maiatzeko*, 29^{an}; — ABENTUKO
 LEHEN IGANTIA, *azaro* 30^{an}.

LAOR THENPORAK :

Baranthaila 19 ⁿ 21 ⁿ eta 22 ⁿ .	}	Buruilako 17 ⁿ , 19 ⁿ eta 20 ⁿ .
Maiatzeko 21 ⁿ , 23 ⁿ eta 24 ⁿ .		Abentuko 17 ⁿ , 19 ⁿ eta 20 ⁿ


EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhunte phartezkoa jorraila 3^{an}. Ezta ikhousiren ^Uskal Herrian. — Argizagi ulhunte osoa, jorraila 22^{an}; pharte ikhousiren da arratseko zazpietarik aitzina, eta argizagia osoki itzaletik jalkiren da hamarretako. — Ekhi ulhunte phartezkoa maiatz 8^{an}, ikhousiren eztena. — Argizagi ulhunte osoa, urrieta 17^{an}; pharte ikhousiren da goizanko hirourak eterdietarik aitzina, goizanko seiak eterditara drano. — Ekhi ulhunte phartezkoa urrieta 31^{an}. Uskal Herrian pharte ikhousiko die ekhi jeikitiko phuntutik eta oren laorden batez.






IRAKOURZALIARI



AMASEIGERREN aldiko agertzenda ziberoutar armanak hao, eta menturaz azken aldikoz. Hounen egiletarik batak hil dira; bestiak zaharturik eta ezinturik; azkena hutsarte gabe holako lanbaten hountzeko ezpeita segur utchurala uduri lukian bezain lan tchipia.

Aorthenko armanaka hirourgerren arraldiko azkena da. Usatu bezala eginik da bi kartillaz algarreki jossirik; lehena mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian urratzekoa dateke. Bigerrena, mintzodena, istoriaz, aholku hounez laborarientako, aitzineko laor ourthetako armanakak begiratudutukienek haieki jossiko die libritto balioubaten egiteko. Haientako dugu hountarik landan emaiten azken arraldi horren edirengia; josten ahal dateke kartillekin.





AZKEN BOST OURTHETAKO ARMANAKEN EDIRENGIA

Uskal herriko laborarier	1
Daigun bozkaz. M. Barthou Maolen.....	4
Kargulantak zer khosta diren.....	9
Daigun jesaitia.....	14
Orriaga : Arrolanen hiltzia.	18
Joben istoria.....	33
Uskara eta Uskal Herria..... 36	84
Etehaltiak noula itzaltzen diren.....	39
Dona Isidoro, laboraria.....	57
Uskara eta Uskaldunak.....	60
Guoden Herrian.....	66
Egiazko Errelijionia ..	81
Abarizia aphurbat.....	90
Zouin errelijione haita.....	105
Bi anaie martiren istoria	109
Komunetako budjeta.	111
Gazteria oštatietan ..	113
Laborantcha :	
Uztak 1897 ^{ik} , 1901 ourthiala drano 19, 45, 70, 92 ..	115
Ameriketako kabaliak Frantzian.....	22
Ogiaren prezioa.....	27
Laborantcharen erezeko lege berriak.....	48
Lurren utzultziak	52
Ogi azikaz ; ereiteko moulede berribat.....	73
Kabaletako eritarzuna.....	95
Laborantchako eskola berribat.....	98
Aihenaren eritarzunbat : <i>Filoxera</i>	118
Espainako lur sagarra.....	124
Istoria eta erasi 30, 54, 78, 101.....	125





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- Ⓐ a. l. 1ⁿ, goizeko 4^{or} eta 17^m.
- Ⓑ a. b. 9ⁿ, goizeko 9^{or} eta 24^m.
- Ⓒ l. l. 16ⁿ, arratseko 6^{or} eta 47^m.
- Ⓓ a. o. 2 3ⁿ, eguerdi eta laordenetan.
- Ⓔ a. l. 31ⁿ, gaiko oren 1 eta 18^m.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓐ a. b. 8ⁿ, gaiko oren 1 eta 31^m.
- Ⓑ l. l. 15ⁿ, gaiko 3^{or} eta 6^mⁱⁿ.
- Ⓒ a. o. 22ⁿ, gaiko oren 1 eta 13^m.



1 Astizken.	ZIRKONZISION.	1 Neskanegun.	s. Iñazio.
2 Ostegun.	s. Makari.	2 Ig. Setsujes.	KHANDERALLU
3 Ostirale.	s. Jenevieva.	3 Astelehen.	s. Blasi.
4 Neskanegun.	s. Rigobert.	4 Asteharte.	sa Jana, Val.
5 Igante.	sa <i>Amelia.</i>	5 Astizken.	sa Agata.
6 Astelehen.	APHARIZIO.	6 Ostegun.	sa Aman.
7 Asteharte.	sa Melania.	7 Ostirale.	s. Romual.
8 Astizken.	s. Luzien.	8 Neskanegun.	s. Johane Mat.
9 Ostegun.	s. Julien.	9 Igante.	<i>Kinkajezimo.</i>
10 Ostirale.	s. Marzien.	10 Astelehen.	sa Eskolaztika.
11 Neskanegun.	s. Teodose.	11 Asteharte.	A. B. Lourdako.
12 Igante. 1.	sa <i>Taziena.</i>	12 Astizken.	Haoste.
13 Astelehen.	J. K. Batheia.	13 Ostegun.	s. Jilbert.
14 Asteharte.	s. Ilera.	14 Ostirale.	Elhorr. Khor.
15 Astizken.	s. Phaole, erm.	15 Neskanegun.	s. Faosti.
16 Ostegun.	s. Marzel.	16 Igante.	<i>Gorozumako 1^a.</i>
17 Ostirale.	s. Antoni.	17 Astelehen.	s. Hiji.
18 Neskanegun.	J. Petir. Err. Jartia.	18 Asteharte.	s. Flavien.
19 Igante. 2.	s. <i>Kanui.</i>	19 Astiz. <i>IVTh.B.</i>	s. Konrad.
20 Astelehen.	s. Fabien eta seb.	20 Ostegun.	s. Eucher.
21 Asteharte.	sa Añes.	21 Ostir. <i>IVTh.B</i>	J. K. Lantza et Itz.
22 Astizken.	s. Bizente.	22 Nesk. <i>IVTh.B.</i>	J. Petir. Ant. Jart.
23 Ostegun.	A. B. Ezkontz.	23 Igante.	<i>Gorozumako 2^a.</i>
24 Ostirale.	s. Timote.	24 Astelehen.	J. MATHIAS, ap.
25 Neskanegun.	J. Phaoler kon.	25 Asteharte.	s. Dosite.
26 Igante. 3.	<i>Zetruajezimo.</i>	26 Astizken.	s. Romano.
27 Astelehen.	s. Johane Kris.	27 Ostegun.	sa Onorina.
28 Asteharte.	s. Amadeo.	28 Ostirale.	Suario S ^{ia} .
29 Astizken.	s. Frantzes S.		
30 Ostegun.	sa Martina.		
31 Ostirale.	s. Petiri Nol		



MAR'CHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☾ a. l. 1ⁿ, arratseko 10^{or} eta 49^m.
- a. b. 9ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 59^m.
- ☽ l. l. 16ⁿ, goizanko 10^{or} eta 22^m.
- ☾ a. o. 23ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 31^m.
- ☾ a. l. 31ⁿ, arratseko 6^{or} eta 33^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdi.



- a. b. 8ⁿ, gaiko oren 1 eta 59^m.
- ☽ l. l. 14ⁿ, arratseko 5^{or} eta 35^m.
- ☾ a. o. 22ⁿ, goizanko 6^{or} eta 59^m.
- ☾ a. l. 30ⁿ, goizanko 11^{or} eta 7^m.




- | | | |
|----|----------------|------------------------------------|
| 1 | Neskanegun. | s. Leon, Baion. |
| 2 | Igante. | <i>Gorozumako</i> 3 ^a . |
| 3 | Astelehen. | s ^a Kungonda. |
| 4 | Asteharte. | s. Kasimir. |
| 5 | Astizken. | s. Luperkule. |
| 6 | Ostegun. | s ^a Koleta. |
| 7 | Ostirale. | J. K. Zaori Sk. |
| 8 | Neskanegun. | s. Johane Jink. |
| 9 | Igante. | <i>Gorozumako</i> 4 ^a . |
| 10 | Astelehen. | 40 Martirak. |
| 11 | Asteharte. | s. Konstanti. |
| 12 | Astizken. | s. Gregori hand. |
| 13 | Ostegun. | s ^a Ufrazia. |
| 14 | Ostirale. | J. K. Odol P. |
| 15 | Neskanegun. | s. Zakaria. |
| 16 | Igante. | PASIONIA. |
| 17 | Astelehen. | s. Patrik. |
| 18 | Asteharte. | J. Gabriel, ark. |
| 19 | Astizken. | s. Jusef. |
| 20 | Ostegun. | s. Zirilo. |
| 21 | Ostirale. | A. B. Dolor. |
| 22 | Neskanegun. | s ^a Riktruda, |
| 23 | Igante. | ERRAMU. |
| 24 | Astelehen. | s. Agapit. |
| 25 | Asteharte. | A. D. M. Anontz. |
| 26 | Astizken. | s. Braolio. |
| 27 | Ostegun. | Osteg. saintu. |
| 28 | Ostirale. | Ostir. saintu. |
| 29 | Neskanegun. | Nesk. saintu. |
| 30 | Igante. | BAZKO. |
| 31 | Astelehen. | s ^a Balbina. |

- | | | |
|----|-------------------|-----------------------------|
| 1 | Asteharte. | s. Huges. |
| 2 | Astizken. | s. Frantz, P. |
| 3 | Ostegun. | s. Richart. |
| 4 | Ostirale. | s. Isidro Alph. |
| 5 | Neskanegun. | s. Bizente Perr. |
| 6 | Igante. 1. | s. Sisto. |
| 7 | Astelehen. | s. Herman. |
| 8 | Asteharte. | s. Albert. |
| 9 | Astizken. | s. Akazio. |
| 10 | Ostegun. | s. Ezekiel. |
| 11 | Ostirale. | s. Leon hand. |
| 12 | Neskanegun | s. Jules. |
| 13 | Igante. 2. | s ^a Ermencjilda. |
| 14 | Astelehen. | s. Justeñ. |
| 15 | Asteharte. | s ^a Anasztazia. |
| 16 | Astizken. | s ^a Grazi. |
| 17 | Ostegun. | s. Anizet. |
| 18 | Ostirale. | s. Elutero. |
| 19 | Neskanegun, | s. Leon IX. |
| 20 | Igante. 3. | s. Teotimo. |
| 21 | Astelehen. | s. Anselmo. |
| 22 | Asteharte. | s. Soter eta Kaio. |
| 23 | Astizken. | s. Jorji. |
| 24 | Ostegun. | s. Zerazi. |
| 25 | Ostirale. | J. MARK, Eb. |
| 26 | Neskanegun. | s. Klet et Marz. |
| 27 | Igante. 4. | s. Zerazio. |
| 28 | Astelehen. | s. Phaole K. |
| 29 | Asteharte. | s. Petiri, m. |
| 30 | Astizken. | s ^a Katalina. |



ZOUIN ERRELIJIONE HAITA



Gz dirade errelijioniak oro egiazkoak : batak bai dioan gaizetan bestiak ez erraiten. Hortarik agerida etzaiola haizu nourbederari edo zouñen haitatzia hanitchek orai alegatzen dien bezala. Bakhoitzari arren ikhertzia zouin den egiatik ari dena, eta houni jarraikitia, bai sinhestez, bai urhatsez. Bena zouin da errelijione egiazkoa? Nourk eta noula ezagut houra?

Areta bakhoitzak ehi ezagut dirokiana da zouin den egiazko errelijionia. Behar ere: ezi noulaz gunuke egiazko errelijioniari jarraikiteko manu tinka, ezpaganu zouin den noula ezagut?

Badukegu guk egiazko errelijionian sortzeko dohaña; joan gabe haren bilha, bestek erran deikie houra dela egiazkoa; haiek errana sinhetsi dugu, eta geroztik hari etchekirik gaode gogoz eta bihotzez. Halere houn da jakin dezan batbederak zer behar den ihardetsi edo gogoan erabili galthatzera edo erraitera heltzen zaitzenian zertako holako errelijioniari jarraikitzen den, eta ez beste bati.

Badu hemeretzu mente hullan Jesus Krist, goure Jaonak, goure errelijionia ekharri ziala mundu hountarat. Ez ouste gabian, bena berrogei mente aitzinetik Jinkoak berak goure lehen boulhasoer hitzamanik. Geroztik, nouizetik nouiziala, Jinkoak igorten zutian berak argitu gizoun amiragarri batzu hitz horren berritzera gizounen gogoan.

Jesus Kristek berak gizoun bezala Jinko ere zela erakoutsu deiku franko egintza amiragarriz, Jinkoba-

tek berak eraz litzakienetarik baizik! hitz gutiz, utsier ikhoustia emaitetz, hebañak ebil eraztez, eri suberte guziak sendotzez, eta hilak arraphiztez.

Utzi deiku bere ondoko, eta beraren ordari, Eliza, eta Elizaren buruzagi, Aita Saintia, houni emanik bazter guzietan harek eitzi erakouspenaren garbi eta oso begiratzeko mania eta photeria. Errelijione khiristia laster hedatu zen ordu hartan ezaguturik ziren leihor orotara. Etziren hatik, ez jakintsiak, ez aberatsak, ez eta aitzindariak haren althe : hoiek orok so gaichtobatekin ikhoustonen zien errelijione berria, zeren guzier erraiten beitzeien egia. Jakintsuner, bazela haiek beno haboro jakitate dianbat, haiek ezta-kiena badakiana, eta orok sinhetsi behardiena, nahiz goure hartzepenaz beno goragoko gaizak erakousten dutian, houra beita Jinkoa. Erraiten zeien aberatser, dohaingabe dela lur hountako hountarzuner gogoa emaiten diana, bestelako dela gizounaren egiazko zorhouna. Aitzindarier aldiz, indarra eta photeria deusere eztirela galgarri baizik, eztagotzenian zuzenaren althe eta habe ; egiazko indarra hountan dagola, nour berak bere jaiodura gaichtoen garhaitzian, eta bere zeluko Naousiaren eskian bethi egoitian.

Jakintsun, aberats eta aitzindariak, egia-horik ezin egariz, bat egin zien Jinkoaren izenian eta hain goratik mintzo zitzaien Eliza horren ezaba erazteko. Hirour mentez bazter guzietan ichouria izan zen gaintika khiristien odola. Etsaiek emaiten zeien haitia : edo fediarri ukho egitia, edo heriotze izigarrienaren egartia. Hitz batez begira litzakielarik bizia, botzik eta gogoa alagerarik emaiten zien fediaeren ez arnegatzeko. Hamar miliouetarano izan da heñ orotako jentetze hola bere bizia eman diena. Halere hanbaten odola ichouria gatik bethi bazoan hedatzez errelijione khiristia. Hañ ountsa noun erran ahal ukhen beitie khiristien odola khiristien hazi zela.

Nountik arren bilhatzen zien khiristiek holako heriotziaren egarteko indarra, eta zerk zeraman traba guziak irallirik, errelijionia geroago eta hurrunago? Jinkoa bera berekin zien, bai Elizak, bai eta haren haorrek; eta Jinkoa althe diana nourk gibel diroke bere bidian aitzina joaitetik?

Arren goure errelijionia Jinkoak berak ekharririk da lurrialat, Jinkoak berak heda erazi du eta arrimatu, gizounek alde orotarik eraiki trabak oro goithuz. Berarentu du jentia, ez inkaratzez eta bortchatzez, ez eta haren jaiodura tzarrak balakatuz, bena goratik egia erranez guzier, jente chehiari, handiari bezala, eta egiaren althe hounki eginez, emaitzez ere behar bazen bizia, egiaren agerterazteko.

Ezpalu ukhen Jinkoa bere althe eta erazle, gizou-nak etsai zutialarik, noula sorthu zatekian goure errelijionia, noula hedatu, eta noula orai artino irañ luke? Orok aithor die goure errelijionia ororen artian ederra dela, bai erakasten dutian egien aldetik, bai eta emaiten deizkun manien aldetik. Erakasten deitzo gizonari, Jinkoaren hitza berme, jakin behar dutian egia guziak bere urhenburiala heltzeko. Eta egia hoietarik gutiz bestiak gizounek gogotik galdurik zutien errelijionia agertu zenian. Nountik arren, ezpazen Jinkoak erakatsirik, zakitzen apostoliek ordunko jakintsun aiphatienek ere etzakitzen egiak?

Egia hoiien jakitia bat da; nountik zukien haien bester erakasteko indarra, ordunko jakintsuner buruz, eta ororen sinhestiak bestelako zirelarik? Ageri zen orori hola aitzia joaitetz, galtzeratutzen zutiela bere buriak: erri egingarri baizik ezin zaitekian jakitate gabe ouste haien bester erakastera abiatzia. Halere aitzina eman zien bere gogoer, eta haboro dena, hanitchek houn hartu haien erakaspentak, ordartio zutien sinhestiak bazter eitzirik.

Bena orok ezagutzen diena da ehiago dela errelijioneko egien sinhestia eziaz eta harek eretchekiten

deizkun eginbider jarraikitia. Lan hori berheziki thorpe eta neke behar zeien agertu judio eta paganoer : ezi haien bizitzeko asturak hurrun ziren errelijionak manhatzen deizkUNETARIK. Bena houna noun judio eta paganoek ounhetsi zien berhala erakaspén berria, hartu dien ere houni datzaion bizi mouldia. Eta hañ azkarki hartu bata eta bestia, noun haietarik zehartu beno nahiago ukhen beitié herioa egari.

Berriz ere nourk ukha diro Jinkoak berak lurrian eren, berak loth erazi eta handi erazi dian lantharebat dela errelijionia ? Eta Jinkoaren ganik hatsarria balinbadu, noula ezta izanén egiazkoa ? Eta hao egiazkoa bada noulaz daiteke besterik egiaz mintzodenik ? Ez ahal dio Jinkoak bai eta ez gaiza beraren gañen ! Noula ere ez sinhets bere odola egiaren althe eman tien bermalliak ?

Haoche da eder ere goure errelijionian eta hortarik du idokiten bere indarra oro : bethi danik errandu eta dio, bethi bardin goratik, hora dela eta hora berbera egiazko errelijionia. Dena denarentako har bezala bakhoitzak edo eitz. Bena ihouri ezteio behin ere ezagutu, izan dadin errege edo beste, haren den gutiena hounkitzeko eskurik. Eliza eta Eliza bera naousi, nourk zer sinhets eta nourk zer egin. Hari behatu nahi eztena, bihoa kanpo ; bena jakin beza urhats beraz zeluko bidiari ihesi egiten diala.

Hola mintza daiteke Eliza, zeren Jinkoaren izenian mintzo beita, eta hartakoz ere eztitake beste gisaz mintza. Ezi gaiza baten gañian hitz bat baizik eztu Jinkoak, eta hora egia. Orobat Jinkoari bazaio gizonari erakoustia zer den eta noun den zeluko bidia, denaz geroz eta hora berbera hanko jabia.

Eztie holakorik erranen higanaotek, ezin beitirokíe. Aldebatetik khiristi izenaren pian jarririk ere, ezтира sinheste bereko. Bakhoitzak sinhesten du lakét zaiona. Bibla erakourten die Ebangelioa ere, bakhoitzak hartzez bere enthelegiaren arao, eta hantik

kanpo ez eta ere hartan gañen berian eztie sinhestiaren batarzunik katolikoek bezala. Sinheste haraintienetan, hala noula Jesus Kristen jinkotarzünian, ezutue gogoak bardin, batek goure Salbazalia Jinko edukiten dienaz geroz, bestek ez. Eztitake beste gisaz, bakhoitzari kaizu zaionian errelijioniaren hartzia bere gogoaren boullten arao. Eta erran daiteke, higanao-
tez aiphu, hounainbeste gizoun, beste hainbèste errelijione. Hortarik beretik ezagun da eztirela egiazko sinhestian, egiak ezpeitu hitzbat baizik; eta hourak aldiz ari bata bestekin ez-baian. Sabelian dielakoz min hori ere aithor die katolikoek sinhestia zelialat heltzeko askidela, egiatik ari dela.

Hortik ere erakousten die eztirela egian. Ezi errelijonia ezta errelijione Jinkoa ganik hëlzten delakoz baizik; gizonak, gizon bezala eztu ihouri zer sinhets edo zer egin manhatzeko eskurik. Bena nourk erran diroke eta sinhets eraz Jinkoaren izenian mintzo dela, dioanian ez eta bai ber gaizaz. Eta Jinkoaren izenian mintzo balinbada, noula erran diro hora ez bezala mintzodena halere Jinko beraren izenian ari dela? Utchurarik batere, buru buztanik gabeko solazak dira horik.

Chuchenagoa, eta hortakoz sarkhorragoa du mintzoa egiak. Horra zerentako ezpalutu ere bere althe goure errelijoniak Jinkoak haren eskuz egin tian gaiza amiragarriak, hao berbera aski gunuke sinhesteko hora dela eta hora bera egiazkoa: hala beiti berak, hala beitu bethi erran, eta ihourk ezpeitero erakoutsu ahal ukhen behin ere egia etzenik erran diala.


Istoria: Bi anaie Martiren fede azkarra eta heriotze loriousa. — Johane eta Phaole ziren bi anaie Erroman sorthurik, eta haorzarotik khiristi legian erakirik. Konstanti enperadoriaren alhabaren etchiaren gobernazale haitaturik izan ziren denbora batez. Bethi

khiristi houn egon ziren eta zutien hountarzun handien mouzkinak amoinatan emaiten zutien. Konstanti hil izan zenian, Julien, arnegata deithu diena, haren ordari agitu. Bi anaie saintu haier galthatu zeren enperadore berriak eia sar litian haren zerbitchian. Bena ihardetsi zéren egundano etzirela hourak Jesus Kristen errelijioniari ukho egin zian printze bati jarraikiko. Bolaturik arrapostu horren entzutia-reki, Julienek eman zeren hamar egunen thermaña, erraiten zerelarik, haietarik landan ezpazien Jupiter jinkotako eduki nahi, eta hari sakrifizio errendatu, thormentu lazgarrietan hileraziko zutiala. Bi anaiek gogoan beitzien hiltzia bere fediaeren begiratzeko, baliatu zien arte houra praober emaiteko zutien hountarzunak, halaz ezdeusetaraturik dolu gutiagoreki bizitziaeren galtzeko.


Hamargerren egunian, Johane eta Phaole othoitzian ari zirelarik, joan zeren enperadoriaren manuz Terenziano enperadore goarden gehiena; begien aitzinian ezaririk Jupiter jinko izunaren harphoulobat, erraiten dere houra behar diela jaoretsi eta adoratu, edo bestela, hil. Bibiek ordian ihardesten Jupiter jinko izun, ezdeus dela; Aita, Semia eta Espiritu Saintia den Hirourtarzun Jinko bakhoitzaz besterik eztiela ezagutzen eta sinheste horren bermatzeko gogo hounez thormenturik handiënen eta herioaren egartera méngoa-turik direla. Terenziano beldur beitzen populia albarota ledin bi anaie saintiak hil erazten bazutian ororen aitzinian, hanitch maithaturik zirelakoz, lephoak ebak erazi zeitzen etchian berian, eta ichilka barat-zian ehortzerazi. Gero oihusta erazi zian desterratu zutiela bi anaiak, enperadoriaren manuz, ouste egia gordeko zian populiari.

Halere laster jakintu zien bi anaien hiltzia : behar gabez harturik ziren gizon batzuk oiuhu egin zien zer zabilan, zounbaitek ere saintu hen hoben gañen othoi eginik osagarria ardietsi. Teranziano hil erazliaren

semia ezpiritu gaichtoak harturik, bi martirak othoiturik eta alaturik, debriaren aztaparretarik soltaturik izan zen. Terenziano bera ere libratu izan zen ezpiritu gaichtoetarik saintu haien medioz. Khiristitu zen ere hortarik landan bere semiareki. Ouste die ere harek diala izkiribatu bi martir saintien istoria egin zeitzen dohañen eskerren utzultzeko, eta khiristitiaren ikhouspidetan.



KOMUNETAKO BUDJETA



BEHIN beno haborotan mintzatu gira armanak hountan Frantziako despendioez eta erakoutsinoula zorrak eta legarrak handitzez doatzan. Diala bi ourthetako budjeta ezinago nekez hountuzien khanberek; arramaiaziala helturik ginen, eta etzen orano deusere ageri. Azken ourthekoa zalhechago urhentu die, bena ez halere behar thenoreko. Ountsala behar lutukie jiten den ourtheko khountiak argitu ourthia hasi beno lehen; bena badu ourthesaldobat goure deputatiek eztiela holako balentriarik egin. Martchoko eginik zen budjeta : budjet geiak bazadukan 55 miliou despendio aitzinekoak beno haborokin eta hori bazelarik urhentzen ari den ourthe hountako ez arraberritzeko despendiotan 77 miliou eta erdi. Fountsian hounturik izanda zerbait ehun eta berrogeitahamar miliou despendio habororekin. Daigun ourthekoa zer dateke; ez tie orano ountsachouritu budjet geia; bena oraïdanik segur da bada tekiala aorthen beno despendio haboro, eta hola emeki emeki bankarrotiala buruz joaiten gira.

Herri komunetako egitekoak eztira hanbat hobe. Ministerioetarik batek nouizian behin (egin behar

luke ourthekal) erakousten deiku kartilla berhezibat etan zertan diren. Ezpeitutu orano agerterazi azken bi ourthetakoak ikhertuko dugu igaran ourthian mouldaerazi kartilla, mintzo dena diala hirour ourthetako komunen budjetez. Badakigu despendioen bardintzeko legiak houn hartu tiala hirour ehungerren suberte : ehungerren ordenarioak, herriko zerbutchu usatientako ; ehungerren berheziak, zounbait zerbutchu bereber entako, hala noula herriko bide eta eskolentako ; eta ehungerren estraordenarioak herriaren hounetan egin despendioen burutzeko. Ehungerrenetarik ehi ezagutzen noula doatzan herribatetako egitekoak eta gora beherak : *ehungerrenak gora, egitekoak apha*.


Erran ourthe hartan bazen usatu jinphidetarik 752 miliou hullan, eta geroago eta gorentzenago dira. Usatu joanphiden bazen 718 miliouz goiti ; hourak ere Frantziako gobierniarenak uduri, geroago eta handiago. Ehungerrenak oro boti heltzen ziren 2 miliou eta 541 mila libera aitzineko ourthian beno haboro. Ehungerren bortchatiek eta estraordenarioek emaiten zien 503 mila libera haborokin.

Azken horik handitu dira ere herri haboroek ezpeitutie bere usatu jinphidez bardintzen ahal herrien hounetan egin lanak. Hoier ohartu behar lizate berheziki, horik beïtira usiegi lan ezdeus edo ederregi elibaten sari.

Ikhouston den bezala, ourthekal bada gorentzebat eta legarkariak igorri paperak chifriak bethi handiago. Herriek gobierniaren antzo batie zorrak ; ororenak boti juntatzez heltzen dira hirour miliart eterditara, 1891 ourthiaz geroztik hirour ehun eta hama sei miliouz handiturik. Aithortu beharda geroko beldur izateko dela. Nour nahi bezainbeste haorren eskolatziazen althe gira, nahiz goure oustez erakaspenn berhezi elibat eztutien eman erazten ; bena jao-regien pare zouñ erezetan egin tien eskola etche

hioen beharrik bazena? Egin ahal zutukien segur behar bezalako, despendio gutiagorekin.

Botzemailer da khasu egitia. Jadanik zounbait her-ritan ezutüe kountsellian sar erazi nahi ehungerrenen arhintzia hitzamaiten dutienak baizik. Ordu da ohar ztia : bestela sarri chahu errakalaturik girateke.



GAZTERIA OSTATIETAN



GAZTERIAREN galbide handienetarik bat izan da bethi danik eta da, egunko egunian behin ere beno haboro, ostatia. Frankotan entzuten da erraiten : « Egiazki ostatiek hanitch eroaiten die ; etchian beharrak chahatzen dutie zounbaitek ostatietan. Bena zer hobe ? Ostalerrak ere bestiak bezala bizi behar. » Eta holako. Nik ere ouste dut ostalerrak bizi behar direla. Bena bestiak ez othe ? Ostatur ostatu, batan edan, bestian edan, gai eta egun hor gainti dabiltzanak ez otha dira bizi behar ? Eta haien emaztiak, haorak, ahaidiak eta hartzelantak ezdireia hourak ere bizi behar ? Nour da horik beno bizi beharragorik ? Zuzen deia gizounak bere irabazien erdiak edo gehiago zuntzurari behera igor ditzan, bere zorrak eta bere etchalteko beharruniak oro bazter eitzirik ?

Gizounak gizon, gazteria dugu heben gehienik urrikari. Gazte danik ostatiala ardura eta ehi lerratzen dena, eztu adinak othuren. Geroago eta lakhetago zitzaioke hari ostatuko bidia. Ahal den gizon geia da ezkont aitzinian ostatialat aiher den mithiko gaztia. Nouzetik nouzera sar jalkhibat edo beste, gazte lagunekin edo zaharragoekin egitia, bekhan eta llabur, eztugu gaitzesten. Bena bethiko jaiodura

gaztedanik diana, zer nahi duzie bilhaka dadin zahartziareki? Deus hounik ez.

Horra zertako hanitch atze herritan ezari dien legia laor ostatutarik bat, biga, edo hirouren zerratzia, eta doia zen hirietan (etzen guti baizik hetarik) ez berririk ezartia. Goberniaren baia behar ardietsi nour ere ostaler jarri nahi denak; ezpeita segur orai galthatzia bezañ aisa. Halaz ostatu gutiago, eta baratzen direnek algarripuchulu gutiago egiten. Badukie irabazbide haborochoago, eta ezirate hañ aiher jentiaeren edan eraztera. Bestek aski die beste zerbait biziphideri lotzia. Ororen burian batzien houna haboroen gaitz handiagotan douanian, zuzen da legia sar dadin erraiteko, eta egin eraz dezoien orori, nahi ala ez, hautsi-mautsibat, Laphourdin dioien bezala. Balinbada lege chuchenik eta zuhurrik, hori bat da segur, ostatien ez hein batetarik goiti usutzeraz eiztia. Ezi okasioniak hanitch egiten du; bide bazterretan urhats guziez kasik ostatubat ikhousten dianari, ikhoustiak berak emaiten deio egarria. Bera egarri eztena lagunek deramate barneat. Sarthuz geroz noula jalkhi zorta bat edan gabe? Haren saria gutiago sakolan. Eta behar dianian bakhoitzak mahañian unguru den saldoarentako phakatu despendioa orano handiago... Batian sar, bestian sar; etchera orduko gizouna tontotia. Biharramenian berriz haste, balinbada sosik.

Nahi eta ez gastuphide gutiago balizate, ostatu gutiago izanez.

Frantzian ezugu aspaldian gorago aiphatu legiaren uduri denik. Areta bagunuke beharra, edalen hounetan, etchalte eta etche khordoka doidoia chutik dagotzenen hounetan, eta azkenekoz ostaleren beraien hounetan. Ezi irabazbidiak tchipi dira khide hanitch denian. Bat aberatsten da, laor aldiz bilaizirik baratzen, berena eta besterena haboroetan thipilturik....


Gazteriari zaitzo gehienik aiher ostatiak. Bada hatik

legebat Frantzian debetazten diana gazten ostatietan hartzia 16 ourthetara drano. Hari noun jarraikitzen dira? Orhit balie bai ostalerrak bai boulhasoak, bai eta herri etako gehienak, lege houra badela zerbait lizate... Bena ihourk eztu harez achola handirik. Haboro dena, ostatu agertzen direnek legia begiraturik ere, zounbat ezta ostatu ichil eta gorde hoietarik: noun nahi, nouiz nahi, egun ala gai, han ethek gazteria mochkor arralltu artino? Haiek die menturaz gaitzik handiena egiten orori; han ezta zaharrik ez gazterik berhezten; hanko bardin houn adin orotakoak; haientako legia ezpaliz bezala. — Nourk erran diro, zer bidegabe izigarria ekhartzen dien holako ostatu bastartek herribatetan?

Gaztedanik edanari aher dena zer bilhakatuko da gehitzian, eta zahartziari buruz? Houra eztateke ez etcheko jaon, ez senhar, ez aita, ez gizon. Deusik ez. Ezkountzen bada, urrikari dutut haren emazia haorak, eta etchaltia. Bere doiaren egiteko ere eztateke houn.



LABORANTCHA



1° Laborantcha eta uztak 1901^{an}.

AORTHEN ezinago nekez jakin tie ogi uzten berriak. Noula arrakharder eta eiherazañ handiek abantalla hanitch beitzien ogikaz aiphu gezur biribil zounbaiten bouhatzez, ezte segurki huts egin. Halere emeki emeki zerchko izan den azken uzta oraikoz ezagun da. *Le Bulletin des Halles* den gasetak usatu bezala galthatu dutu eretze orotako berriak, eta dioanaz izan da Frantzia orotan ehun eta sei miliou ektolitra ogi eraikirik. Bada arren hirour miliou

zaku azken ourthian beno gutiako. Guneka etzen segur bihia eder : mardo, kolore hiltto, eta arhin. Bena haboroetan besterik da, eta bihiak ezta erraitekorik ez utchuraren eta kalitatiaren aldetik, ez eta pheziarenetik. Baratzen delakoz guti bihi zaharretarik, uduri luke atze herrietarik sarthu behar lizatiala ogi ountsatto. Bena noula Ameriketara uzta ountsaz igaran ourthekoa beno tchipiako izan beita eta Arrusiak ere bere doia ezpeitu egin, ezta beldur izateko sar dadin bihi hanitch kanpotik. Ere badakie atze herrietako saltzalek ugurukiten ogiaren prezioa gorentche dadin hounat igorteko. Eta ezta orano mementoa : ezi laborari chehe hanitchek.ogiak berhala saldu nahiz, merkhatietan hanitch eskentu die eta halaz prezioak apha erazi. Agitzen da bethi ber gaiza : zounbat ere beita eskeintzale haboro, hanbatnaz erostunak tinkago.

Mundu orotako errekoilta 950 miliou zakutara drano edukiten die, eta bada 70 miliou zaku azken ourthian beno haboro. Indesetan berheziki izan da uzta ederra : bazen sei miliou kintale aitzinekoan beno haboro. Ogi zahar oundarrak estimatzen tie 81 miliou zaku, 4 miliou diala ourthebat beno haboro.

Goure departamentiaz aiphu, bazen ehun mila ithegunez goiti ogitan ereñik : emandie 596 mila ogi zaku phezu beitie 459 mila kintale ; garagar eta sekale guti egin die.

Betaraba sukredunak eman du eijerki ; betaraba bazkagei bazen ere aosarki, eta dena eder. Ardou haboroenik egiten den gunetan bazen mahats gaintika eta hanitch ountsa hountu da ; ardoua ezinago houn eginen die, eta merke salduko, ezin bestian, sobera izanez. Egundaldi ederrik eroanen die ardoua maite dienek. Etzen aorthen sagarren ourthaldi : guti izan da, bena azken errekoiltatik sagarardou franko baratzen da orano.

Belhar izan da aorthen, eder eta houn, lehen eba-

kaldian ja. Arradall guti, hanitch eretzetan idorte egin dialakoz. Kabaliak bethi merke azken bi ourthetan bezala, salbu eretche eta ahariak. Bena eritarzunak gune haboroetan borthizkiago jo dutu, eta ikhousi die hiltzen zounbait orenen barnen. Borthakoak hobeki saltzen dira haboroetan.

Ezta lege handirik izan laborantcharen hounetan edarien legiaz bestalde. Bada bat algarren arteko kreditaren gañen, haren medioz gobernua phestatzera haizu beita *caisses régionales de crédit* direner kapitalaren laoetara drano.

Ziberouko uzten berriak. — Ourthe tcharra izan da azken hao goure laborarientako. Areta abio ederra ukhen zian; bena uda órotan eta larrazkenian ere haroa gaichto zen; bethi bousti edo hotz, sekula ez zohart ihitzik. Hartakoz ere nahiz azikak goizik eta trenpu hounian eginik izan ziren, ogi guti izan da. Hobekienik khaositu direnek ukhen die uzta usatieren hirour phartetarik biga, bena hanitchek ez erdiaz goiti, eta zounbaitek ez hainbeste ere. Artho izan da arrountian aski ountsa. Bena bortu ondouetan nekez zorhitu dira eta hanitch gunetan zankhoaren mehiak erorrizi dutu eta boustiak ogen egin dere, galerazi ere zounin eretzetan.

Lur sagar guti izan da. Aski larritu gabe haroaren gaichtoaz ostoak lanhatu eta eihartu zeitzen, eta sagarrak chehe baratu. Berantian idoki dutiener hanitch hirotu zeitze, eta barhek beste hanitch jan. Iharrak hobeki eman du. Aspaldiko ourthetan ezgunian ikhousi hainbeste ilhar ez alhorretan, ez baratzetan eré. Izan bedi zerbait berere thipiñaren alhatzeko.

Zi eta gaztaña ederki izan da eta haboroak houn; balheiu guti. Bena Pettar alteko herrietan (Maolez beherakoetan) gaztañatze hanitch, eritarzunak jorik, eihartu dira, eta sarri ez tate haboro batere.

Intzaor, sagar eta udari guti, hanitch guti, eta dire-

nak ere nokuzu, ez bihirik ere begiratzeko houn datekianik.

Belhar eta arradall hanitch bazen, bena houn guti bildu die euria zelakoz kasik egun oroz. Arradalla berheziki hanitch nekez bedakatu die, zounbaiti erdia hirotu zeie moundolletan edo nahaietan eta beste hanitchek ebaki gabe eitzu behar ukhen die, orano hobe beitziren !

Mahatsak abioa ederrenetarik zian. Bena pharte handibat lanhoak lilian galerazi zian. Gero eritarzunen lagun euriak uda orotan gaizki erabili du zen gutia. Mouhouri hanitch hirotu dira, bestiak erori, oundarrak aldiz trajeak bezain gogor baratu. Ardou guti arren Ziberoan eta dena ez net harainti.

Horra noulako izan diren goure uztak Beste gainti batetarik kabalek, salbu idi ederrek eta mandoek, ezte thiarik aspaldi hountan ; ilhiak merkatzez badoatza ourthetik ourthera, legarrak aldiz bethi goratzez. Holaz ezta bizitzerik laborari gaichoarentako.

II. — Aihenaren eritarzunbat : Filoxera.

Hori da aihenaren eritarzunik gaitzena, azken ourte hoietan Ziberoan ere sarthu zeikuna. Bethi bezala sendotu orde emendatzen ari da et beldur izateko da damu handirik ukhen ezen laster binerek. Heltu bada ere mahasti aldiabat badira jadanik eri, bena agitzen den bezala, ezta orano kanpo ountsa ageri. Hola ari da etsai hori, ezabaka ; agertu denekoz ountsa eri da aihen oundoua.

Bazaio arren jakitia noula ezagut eta noula garhait gaitza, arrabaska sobera egin beno lehen. Filoxera dena gahartzen da ostouer eta zañer. Bena goure aihenetan batzen die bereberki zañetan eta bekhan ostouetan.

Ihize chehebat da zorri tchipiena uduri. Badu eztenbat hareki mourtchatzen beitu lanthariak lurre-

tik idokiten dian sapa. Bista hounbatek, ohidura zerbaiteki, ikhous diro, nahi bada ezten milimetrabat eta milimetra herenbaten arteko handi baizik, kolorez holli sofriaren antzo edo holli berdatsu, eta zouñ aldiz muskaran.

Beste asko ihize chehe uduri, utchuraz aldatzen da haroaren arao. Negian arraotzian da; bedatsian, arraotze hortarik jalkhiten gorago aiphatu ihizia, zañer lotzen dena. Geroan ullu edo hegalsti bilhakturen da, bena anhartio, hegalgabe datekiano, aldaturen da ama erule batetan, eta emanen laster populkatuko diren hume saldobat. Halakoz hainbeste estaltzen dira aihen erroak noun ageri beitira holli holliak. Zañ chehetan beretan, ezpadira ihize hoiek chahu janik, ikhouston ahal dira aski handi diren opilou uduri elibat ihize hoien ousoukien eretzetan.

Bena uztailan eta agorrilan aldatu orde ihize eruletara luzatzen dira eta hegaldun jarten. Eta ihize berri, ullu horrek du aihenaren gaitza hurrunian beste mahastietara hedatuko. Ihize hegaldun hori ostope-tan lotzen eta eruten bi arraotze mota, arrak eta amak, azken hoietarik jalkhiko dira bere aldian emaiteko neguko arraotze gorago aiphatia. Deithu die neguko arraotzia, negia aihen ondón gañen eroaiten dialakoz, bi ourthe edo haborotako zouraren achal artetan. Neguko arraotze hortarik da sorthuko bedatsiari buruz zañetako zorria.

Gisa hortan du filoxerak zañetarik gabeturen aihena; eta hil eraziko denbora laburretan zahar bada eta goroztadurarik ezpadu ukheiten.

Horra etsaia ezagaturik; ageri da lurpian zañaren jalia dena, gaitzena. Noula goith? Ordokietan askitto ountsa burutu die ourthekeo sasou batez miñabersia huprian ethekiz. Bena aohar da sendogallu horrez mintzatzia Ziberouko entako oro patarretan beitira. Beste zerbait bide hartu behar da. Orai artino hobena izan da *sulfure de carbone* deitzen den phozou gaitza,

alphor gisa eta tresna berhezibateki zañetara helerazten dena. Zorriak hounki bezain sarri ithotzen tu, bena khario da, eta ez nour nahik erabiltekoa, beitutu bere gaitzuniak.

Ezagutzen tugu gaitzaren gora beherak, noula kantopik hasten den, gero zañetara joaiteko; badakie ere aihena behar bezala gorostaturik denian gaitzari hobeki buhurtzen dela. Lehen lehen gaiza dateke neguko arraotziari jatzartzia, houra denaz geroz gaitzaren abioa. Haren galeraztez ageri da eztela hedatuko, eta, aitzineko ourthetan ezpada sobera atakirik izan, arra azkartuko da aihen ondoua, berheziki gorotz edo hounkallu suberte elibat, goano, eta bestelibat ezarten bazaitzo lagun.

Erran daiteke orai artekan esprabatu erremedioetan guti houn agitu direla: hetarik dira lurinkhatzetik idokiten tien olio lodiak aski barna achalian sartzen beitira. Bena heñ batetarik gainti ezarten bada ogen ekhar dirokie berek aihen ondoari. Ikhertu die arren beste zerbait erremedio gaitza hañ ountsa galerazteko indarra badiana, aihena erre gabe. Zinez laidatzen die azken denbora hoietan *Lysol* deitzen den phasta; houra ere idokiten die lur inkhatz edo goudrou olio etarik, eta ihiziaren neguko arraotziak bestek bezañ ountsa galerazten. Abantalla handibat badu: nahastekatzen da hourareki eta aihenari ogen ez egiteko izarian ezarten ahald. Nourk ere borogatu nahi beituke erremedio hori hobena duke laborantchako bilkura edo sendikaten medioz ekhar eraztia.

Zouin nahi erremedio hoietarik haitaturik, ezari behar dateke negian eta ahalaz haro idorrareki. Arren aldarteka egiten ahal lanbat da. Ez ahatz hargatik zour zaharrak haboro bousti behar badu, gañtiak gutiago aski dila. Ourtheko adarren eztateke balio ezartia; achala leñ die eta hegaldunen benia da arraotzen erutia achal zaharraren arrallunetan. Erran bezala *Lysola* hourareki nahastekatzen ahal beita, aitzinetik

adelatzen ahal dateke ezarteko erremedioa azkarrago edo flakiago noula ere beitateke boustatzeko zoura (bi ourthetako edo zaharrago).

Zer heñetan behar da Lysol dena hourari ezari ? Ezagutu die eta esprabi ehun litra hourentako aski datekiala hirour kilo drogatik, bi ourthetako zourari ezarteko. A Idiz zour zaharraren haboro behar-dateke, bostetara drano. Erremedioa ezartenda hobekienik phintseu latz eta gogor bateki, achala ountsa boustatzeko gisan. Egin ahal lizate orano lana *pulvérisateur* deitzen dien chapastazaliareki ; bena hartako behar tresnabat ahalaz chilo tchikipieki, eta zounbat nahi hareki bertanago egiten den, eztate phintseuareki ezartia beno deus hoberik.

Mila aihen ondoren beharda nounbait 50 edo 60 litra erremedio prestatu hortarik eta khosta da 3 eta 6 liberaren artian. Eniz mintzo lanaren jornaliaz, zeren eta eginen ahalko beita hutsarteka azarotik eta martchoala, denbora galtze handirik gabe. Zounbaitek nahigo die boustatze hori ez egin aihena moutz landan baizik.

Ihize bakant zounbait ezkapi balire herioari ehi laiteke haien galeraztia, aihen ondo bakhoitzari lurra aparta eta ezartez zounbait khedarre ahurreta. Khedarriak baduke ihiziaren ehaiteko indarra, idorrian begiraturik izanbada, bedatsian arraotzetik jalkhi, eta eraitchiko denian ondouari behera zañetara. Khedarre horrek eztuke ezari behar baranthaila erditik eta martho erdi arte hortan baizik. Segurrago izateko, ezar ahal leite orano uztailan, eho ahal dezan ordian kanpoat agertzen den ihize hegalduna.

Houna orano beste drogabat zinez gomendatia aihen ondoen boustatzeko edo tintatzeko :

Huile lourde de houille	5 kilogr.
Naphtaline brute.	15 id.
Latsun bero	30 id.
Hour.	100 litra.

Naphtaline denak hourt erazi behar du olio lodi hortan ; arte hortan latsunari ezar hour guti bat, erhaosteko doia. Gero ichour latsunan gaña naphtaline eta olio nahastekatiak ; eta gero hoietara, emeki, emeki, ichourten da houra, algarreki ountsa nahasiz, krema edo boullia uduri jar dadin. Boullia horreki tintatzen aihen ondoua phintseu gogor bateki, aihen mouztia egin landan.

Horra etsaia eta horra noula goitzen ahal den. Bena elizate aski hori egin, eta deus haboro ez egitia. Zaharrek ouste zien aihenak eziala goroztik behar. Arrazou zien hein batez, eta elizate ezar beharrik den gutieneko hounkallurik miñabersetan haroak ohiko denboretan bezala chuchen balire. Bena khordokaturik dira zinez eta hortarik landan jin dira eritarzun saldobat : Oidium, mildiou, arrota eta besterik orano ; azkena eta gaitzena, gorago aiphatzen duguna. Horietarik libratzeko, eta aihenaren azkartzeko ezagutu die miñabersetako lurrak lanthu behardiala alhor bat bezañ ountsa eta ere goroztatu. Etchalte gorotza houn da ; aihenari indar emaiten dero, eta mahats haboro eman erazten, nahiz hartarik egin ardoua hilago bilhatzen den, zaharrek hanitch ountsa ezagutu zien bezala. Bena etchalte gorotza beno hoberik bada, hounkallu erhaots berri horietarik, sendikaten bidez ekhar erazten ahal direnetarik.

Arren houna zer beharko dian egin bere miñabersiari indar eman' nahidukianak, eta egin ardou hanitch eta houn. Aihen zaharra edo eria llabur moutz, llaburrago lur mehe eta tcharretakoa ; ondouak hount gorotzareki, hirour ourthetarik batez, nahi bada oustekeria den ardouaren indarretik idokitzen dian ; beste bi ourthetan ezar aiphatu hounkallu erhaotsetarik. Enainte atrebi aholkatzera kountino azken hounkallu hoietarik ezartera. Ezi ezagutu die zounbait ourtheren burian lurra gogortzenago dela idortiareki eta hanitch nekezago erabilten, ezpazaio

ezarten erhaots hounkallu baizik ; houn dateke arren hirour ourthetarik behin ezartia gorotz. Halaz lurra bethi aisa erabiliko da, eta oundoko ourthetan ezari erhaotsak aihenak hobeki baliaturen dutu.

Houna aihen aiphastienetan eta ardou arraro eta kharioenak emaiten dutien etan ezarten ohi dien hounkallu bat :

Scories de déphosphoration.	500 kilogr.
Chlorure de potassium . . .	200 —
Bitriol <i>berde</i>	300 —

Horik algarreki ountsa nahasirik khosta dira 100 eta 120 liberaren artian. Ziberouko sendikaten bidez ekharraz eta nourk berak erhaostu eta nahasi ondouan eman aihen ondoari bedatse hatsarrian.

Filoxerak goithurik den biñabersiaz zer egin ? Lan khosta eta aherbat lizate kartieleko aibenetik arralanthatzia. Bestalde ezaguturik da eta borogaturik Frantzia guzian Ameriketako lantharek baizik eztiela aski indar gaitz horri buhurtzeko. Haien zañ azkarrek hazten dutie filoxeraren zorriak, eta halere aski indar emaiten ondouari mahats ederki ekhar gisan ; bena haiek eman ardoua arhin eta chabor da eta ez begiratzeko houn. Hebenko ardou kalitate ederra nahi lukianak begiratu behar lutuke lanthatu Ameriketako aibenetarik eta hetan gañen enpheltatu hebenko kalitate arraroak. Segur da eta borogaturik noun ere hala egin beitie (erjan ahal leite kasik Frantziako eretze orotan) kartieletako aihenek beno mahats haboro emaiten diela ondo enpheltatiek, eta ardoua aihen aitzinekoek bezañ houn. Badira Ameriketako lanthariak hebenko kalitate hounetarik enphetaturik ; zañak eginik, lanthatzeko prest saltzen dira hogeitabost libera mila ondoka.


Bena lurraren kalitatiez ere khountu eduki behar da. Ziberoan biñaberse lurrak patarretan dira, buztanu eta lakozu. Haitatu beharko da arren, bospasei

Ameriketako lanthare mutetan, lur hortan hobekienik ohatuko direnak. *Solonis* deithia dateke beharbada hobena; bena borogatzen ahal dirateke *rupestris* eta *jacquez* deitzen dutienak. Ezagaturik da Ameriketako lantharen gañen ountsa enpheltatzen direla Frantziako aihen muta haborochiak. Bena bazakeio bat bederak sogin dezan zouñ kalitate khaositzen dian bere aizoak eta berak. Zentzu borogatu hobe date zentzu eskolatu beno.


III. — Espainako lur sagarra.

Houra da frantzesez deitzen diena *topinambour*. Lursagar mutabat da hebenkoa beno zabaltiagoa, herabestien eta ezin heltien uzta ederra eta aisa. Ezaitzo ere haroaren gorabeherak hebenkoer bezañ noku-garri. Aski du behin ereitia, bethikoz lur erabilian, bedatse hatsarrian. Emaiten du artho zankhoa bezañ luzeko zankhobat uda orotan iraitien diana; gaztañtziaren utchurako ostobatez unguratia, urrietan lili holli bat thinian. Ostoa kabale guziek maite die, bena ezta biltzen agorrila urhentzialano, hobeki haz ahal-dadin erroa, edo lurpeko sagarrak; ezi azken hao da lanthariak dagokan uzta balioua. Sagar horrek eitz behar du lur pian, beharra jin artino, negian ere; bil baledi barneat gasta leite amoust egunen buruko. Beharruniaren araoera idokitzen da lurpetik eta chatu ondoan emaiten kabaler. Bereberra da borthakoaren gizenterazteko, ala gordinik ala egosirik. Goure lur sagarra beno eztiago da; jentek ere jaten die egosirik.

Sagarrak oro bildurik direnian, askida gorotz amibat emaitia gañetik bedatsian, ezpeitu arra eren beharrik; ikhouston ahal eztiren hari chouri batzu baratzen dira lurrian, eta hetarik jinen landanko sagarrak beste ereitzerik gabe.



ISTORIA ETA ERASI




GIZOUNBAT plañi zen beste bati justiziak presou ezari zialakoz. Bena beste harek ihardetsi zerentako zamari ebasten ari den egunaren erdian. Lehenak aitzina : « Ogen duk hola eni mintzatzez ; eztiat nik batere zamaririk ebatsi. Sogik : egunbatez buruzagiak igorri nindia hiriala mezu baten egitera, eta karrika hersibatetan zamaribat trebes bazia. Oihu egiten ditade jentek enandin zamariaren gibeletik igaran, bestela ostikatabat ukhenen niala.

Aitzinetik igaraitera abiatzen nuk eta berriz oihegiten ditade ez hantik igaraitez, bestela zamariak ou-soukiko nundiala. Ordian zer egiten dut ? phasatzen zankhoa estriberan, eta gaña heltu nintzaneko lotzen zioz zamariari haginetakoa mina eta eroaiten nik debrien aidian nahi ala ez, hantik hurrun, hogeitabost lekoatan. Eta gero hori deia justiziak deithu behar diana zamaribaten ebastia ! »

Bazen eniz orhit noun, neskatila gaztebat ezkontu nahi handitan. Hargatik erraitekobat bazian handia, ments zian ezkontzeko dotia. Hori ikhousirik, ber herriko etcheko andere aberats batek eman zeron neskatilari berrogeita hamar lus ezkontzeko eta gomendatu senhar geia ezkontu gabe ikhousi nahi zukiala. Denboraren burian, neskatilak hartu zian lagun gei mouthiko itchousi itchousibat, eta joan zen houneki ezkontsari emailiaren aitziniala : « Ai ! haorra, harek berhala, badaitekia holako amoros itchousia hartu diña ! » Neskatilak ihardetsi finazia

minoa chotilki ezkapatzen zaio eta jaozten bizkarran gaña ; eta aztaparbatez lephoko larrutik harturik, hasten zaio muthurrari behera kaska eta kaska. Artzanhora orroaz, utzul hounat, utzul harat, makhila kolpier ihes egin nahiz. Chiminoak aldiz aitzina. Azkenekoz behar ukhen zian buruzagiak deithu, bestela hora ehoko zian chimino uduri ezdeusak.

Angles jaon handibatek manhatu zian bere mithila joan lekion laborari etchebatetara kallatu bilha. Mithilak ihardesten dero : « Hori neskatoaren egitekoa duzu, eta ez ni bezalako mithilbat ena. » Jaonak ordian : « Eta zer da zuk egitekoa ? » — « Zaldien arthatzia, athelatzia, eta karrocharen ebileraztia. » — « Arren, naousiak aitzina, athela itzatzu zaldiak eta neskatoa eramazu karrochan kallatiaren bilha. » Hitzik haboro erran gabe joan zen meziaren egitera.





MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laordenez




- ⊙ a. b. 7ⁿ, goizeko 10^{or} eta 54^{min}.
- ⊙ l. l. 14ⁿ, gaiko oren 1 eta 49^m.
- ⊙ a. o. 21ⁿ, arratseko 10^{or} eta 55^m.
- ⊙ a. l. 30ⁿ, gailherdi eta 10^m.

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.

- ⊙ a. b. 5ⁿ, arratseko 6^{or} eta 20^{min}.
- ⊙ l. l. 12ⁿ, eguerdi eta 3^{min}.
- ⊙ a. o. 20ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 26^m.
- ⊙ a. l. 28ⁿ, goizeko 10^{or} eta min. 1ⁿ.



1	Ostegun.	J. Filipe et. Jak. Ap.
2	Ostirale.	s. Atanasi.
3	Neskanegun.	D ^a Khurutze.
4	Igante. 4.	s ^a <i>Monika</i> .
5	Astelehen.	s. Pio V. <i>Errogaz</i>
6	Asteharte.	s. Johans Eb. B L.
7	Astizken.	s. Stanizlas.
8	Ostegun.	SALBATORE
9	Ostirale.	s. Gregori, Na.
10	Neskanegun.	s. Antoneñ.
11	Igante. 5.	s. <i>Oriens</i> .
12	Astelehen.	s. Nep et Akil.
13	Asteharte.	s. Jenio.
14	Astizken.	s. Johane Sala.
15	Ostegun.	s. Eutrope.
16	Ostirale.	s. Johane Nep.
17	Neskanegun.	s. Paskal.
18	Igante.	PHENTEKOSTE.
19	Astelehen.	s ^a <i>Pudençiena</i> .
20	Asteharte.	s. Bernardeñ.
21	Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Petiri Zel.
22	Ostegun.	s ^a Kiteria.
23	Ostir. <i>IV Th. B.</i>	s. Ubalde.
24	Nesk. <i>IV Th. B.</i>	A. B. Laguntz.
25	Igante. 1.	TRINITATE.
26	Astelehen.	s. Filipe Neri.
27	Asteharte.	s. M. Mad. P.
28	Astizken.	s. Agosti.
29	Ostegun.	BEST'ABERI.
30	Ostirale.	s. Felis.
31	Neskanegun.	s ^a Anjela.

1	Igante. 2.	s. <i>Kler</i> .
2	Astelehen.	s. Poteni.
3	Asteharte.	s ^a Klotilda.
4	Astizken.	s. Frantzes K.
5	Ostegun.	s. Bonifazi.
6	Ostirale.	J. BIHOTZSAK.
7	Neskanegun.	s. Majan.
8	Igante. 3.	s. <i>Medart</i> .
9	Astelehen.	s ^a Pelajia.
10	Asteharte.	s ^a Margarita.
11	Astizken.	J. BARNABE, a.
12	Ostegun.	s. Johane F.
13	Ostirale.	s. Antoni, Pad.
14	Neskanegun.	s. Basila.
15	Igante. 4.	s ^a <i>Jermena</i> .
16	Astelehen.	s. Frantzés R.
17	Asteharte.	s. Avit.
18	Astizken.	s ^a Marina.
19	Ostegun.	s. Jervasi eta Prot.
20	Ostirale.	s ^a Julieta F.
21	Neskanegun.	s. Louis Gonz.
22	Igante. 5.	s. <i>Paolein</i> .
23	Astelehen.	s. Eusebio.
24	Asteharte.	J. JOHANE BA.
25	Astizken.	s ^a Eurosia.
26	Ostegun.	s. Johane eta Paole.
27	Ostirale.	s. Prosper.
28	Neskanegun.	s. Irene.
29	Igante. 6.	J. PETIRI et P.
30	Astelehen.	J. Paoler. orh.



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ① a. b. 5ⁿ, goizeko or. 1 eta 8^m.
 ② l. l. 12ⁿ, gaiherdi eta 56^m.
 ③ a. o. 20ⁿ, goizanko 4^{or} eta 54^m.
 ④ a. l. 27ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 14^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ① a. b. 3ⁿ, goizanko 8^{or} eta 26^m.
 ② l. l. 10ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 33^m.
 ③ a. o. 18ⁿ, arratseko 6^{or} eta 13^m.
 ④ a. l. 25ⁿ, arratseko 1 1^{or} eta 14^m.



- | | |
|-----------------------|---------------------|
| 1 Asteharte. | s. Tierri. |
| 2 Astizken. | A. B. Bisitaz. |
| 3 Ostegun. | s. Gillen. |
| 4 Ostirale. | s. Léon II. |
| 5 Neskanegun. | s. Zirile. |
| 6 Igante. 7. | J. K. Odol Pr. |
| 7 Astelehen. | s. Marzial. |
| 8 Asteharte. | sa Beronika. |
| 9 Astizken. | sa Elisabet, P. |
| 10 Ostegun. | 7 anaie mart. |
| 11 Ostirale. | s. Pio. |
| 12 Neskanegun. | s. Johane G. |
| 13 Igante. 8. | s. <i>Anaklet.</i> |
| 14 Astelehen. | s. Bonaventura |
| 15 Asteharte. | s. Henrik. |
| 16 Astizken. | A. B. Karmel. |
| 17 Ostegun. | s. Aletsis. |
| 18 Ostirale. | s. Kamille. |
| 19 Neskanegun. | s. Bizente Paolo. |
| 20 Igante. 9. | s. <i>Filibert.</i> |
| 21 Astelehen. | sa Pratseda. |
| 22 Asteharte. | sa M. Maidalena. |
| 23 Astizken. | s. Apolinari. |
| 24 Ostegun. | s. Kristina. |
| 25 Ostirale. | J. JAKOBE, ap. |
| 26 Neskanegun. | sa Aña. |
| 27 Igante. 10. | s. <i>Galatori.</i> |
| 28 Astelehen. | s. Nazari et Z. |
| 29 Asteharte. | sa Marta. |
| 30 Astizken. | s. Abdon. |
| 31 Ostegun. | s. InazioLoiola |

- | | |
|-----------------------|------------------------|
| 1 Ostirale. | J. Petiri kat. 7 |
| 2 Neskanegun. | s. Estebe err. |
| 3 Igante. 11. | J. <i>Ezdeb. Edir.</i> |
| 4 Astelehen. | s. Dominiche. |
| 5 Asteharte. | A. B. Elhurr. |
| 6 Astizken. | J. K. Transfig. |
| 7 Ostegun. | s. Kajetan. |
| 8 Ostirale. | s. Ziriaka. |
| 9 Neskanegun. | s. Jermein. |
| 10 Igante. 12. | s. <i>Laorentz,</i> m. |
| 11 Astelehen. | s. Tiburze. |
| 12 Asteharte. | sa Klara. |
| 13 Astizken. | sa Radegonda. |
| 14 Ostegun. | s. Eusebio. |
| 15 Ostirale. | A. D. M. ZELIALAT. |
| 16 Neskanegun. | s. Rok. |
| 17 Igante. 13. | s. <i>Joakimo.</i> |
| 18 Astelehen. | sa Elena. |
| 19 Asteharte. | sa Filomena. |
| 20 Astizken. | s. Bernat. |
| 21 Ostegun. | s. Julien Lesk. |
| 22 Ostirale. | s. Ipolita. |
| 23 Neskanegun. | s. Filipe Ben. |
| 24 Igante. 14. | J. BARTOL., ap. |
| 25 Astelehen. | s. Louis, err. |
| 26 Asteharte. | s. Filibert. |
| 27 Astizken. | s. Jusef Kal. |
| 28 Ostegun. | s. Agosti. |
| 29 Ostirale. | J. Joh. Lephom. |
| 30 Neskanegun. | sa Rosa, Lima. |
| 31 Igante. 15. | s. <i>Remoun N.</i> |



BURUIA edo SETEMER

Eg. Ilaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ⊙ a. b. 1ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 28^m.
- ⊙ l. l. 9ⁿ, goizeko 10^{or} eta 24^m.
- ⊙ a. o. 17ⁿ, goizeko 6^{or} eta 33^m.
- ⊙ a. l. 24ⁿ, goizeko 4^{or} eta 41^m.

URRIETA

Eg. Ilaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ⊙ a. b. 1ⁿ, goizanko 5^{or} eta 18^m.
- ⊙ l. l. 9ⁿ, goizanko 5^{or} eterditan.
- ⊙ a. o. 16ⁿ, arratseko 6^{or} eta 10^m.
- ⊙ a. l. 23ⁿ, goizeko 11^{or} eta 7^m.
- ⊙ a. b. 30ⁿ, arratseko 8^{or} eta 23^m.



- 1 Astelehen. s. Jiles.
- 2 Asteharte. D. Justi.
- 3 Astizken. s. Lizier.
- 4 Ostegun. sa Frantzes a Gh.
- 5 Ostirale. s. Laurenz J.
- 6 Neskanegun. s. Onesiforo.
- 7 **Igante.** 16. s. Zebero.
- 8 Astelehen. A. B. Sortzia.
- 9 Asteharte. s. Omer.
- 10 Astizken. sa Pulkeria.
- 11 Ostegun. s. Iazinte.
- 12 Ostirale. s. Gi.
- 13 Neskanegun. sa Ujenia.
- 14 **Igante.** 17. A. B. Izen Sia.
- 15 Astelehen. s. Nikomede.
- 16 Asteharte. s. Ziprieñ.
- 17 Astiz. *IVTb. B.* s. Frantz. zaor.
- 18 Ostegun. s. Jusef Kup.
- 19 Ostir. *IVTb. B.* s. Janvier.
- 20 Nesk. *IVTb. B.* s. Eustache.
- 11 **Igante.** 18. J. MATHIU, Eb.
- 12 Astelehen. A. Maor.
- 13 Asteharte. sa Tekla.
- 14 Astizken. A. B. Librazalia
- 15 Ostegun. s. Aostinde.
- 16 Ostirale. s. Tomas Vil.
- 17 Neskanegun. s. Kosma eta Dam.
- 18 **Igante.** 19. s. Faoste.
- 19 Astelehen. J. Migel, ark.
- 20 Asteharte. s. Jeronimo.

- 1 Astizken. s. Remi.
- 2 Ostegun. Ainguru beg.
- 3 Ostirale. s. Binzeslaz.
- 4 Neskanegun. s. Frantzes, As.
- 5 **Igante.** 20. Arrusarioa.
- 6 Astelehen. s. Bruno.
- 7 Asteharte. sa Fide.
- 8 Astizken. sa Birjita.
- 9 Ostegun. s. Denis.
- 10 Ostirale. s. Frantzes B.
- 11 Neskanegun. sa Sabina.
- 12 **Igante.** 21. A. B. Amatarz.
- 13 Astelehen. s. Edoart.
- 14 Asteharte. s. Kalista.
- 15 Astizken. sa Teresa.
- 16 Ostegun. s. Beltran.
- 17 Ostirale. sa Edvije.
- 18 Neskanegun. J. LUK, Eb.
- 19 **Igante.** 22. A. B. Garbitarz
- 20 Astelehen. s. Grat, Olor.
- 21 Asteharte. sa Ursula.
- 22 Astizken. s. Petiri, Alk.
- 23 Ostegun. s. Leotade.
- 24 Ostirale. s. Rafael, ark.
- 25 Neskanegun. s. Krespi.
- 26 **Igante.** 23. A. B. Patron.
- 27 Astelehen. s. Fronton.
- 28 Asteharte. J. SIMOUN, ap.
- 29 Astizken. sa Eusebia.
- 30 Ostegun. s. Kazien.
- 31 Ostirale. s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA
Egunak Ilaburtzen dira orenez.




- ☽ l. l. 8ⁿ, gaiherdi eta 40^m.
 ☿ a. o. 15ⁿ, goizeko 5^{or} eta 16^m.
 ♃ a. l. 21ⁿ, arratseko 7^{or} eta 36^m.
 ♁ a. b. 29ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 14^m.

ABENTIA edo NEGILA
Eg. Ilaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}.



- ☽ l. l. 7ⁿ, arratseko 6^{or} eta 36^m.
 ☿ a. o. 14ⁿ, arrastiriko 1^{or} eta 37^m.
 ♃ a. l. 21ⁿ, goizeko 8^{or} eta 9^m.
 ♁ a. b. 29ⁿ, goizeko 9^{or} eta 34^m.



1 Neskanegun.	DONISANTORE.
2 Igante. 24	<i>Purg. arimak.</i>
3 Astelehen.	s. Übert.
4 Asteharte.	s. Charles Bor.
5 Astizken.	s. Zakaria.
6 Ostegun.	s. Leonart.
7 Ostirale.	s. Florent.
8 Neskanegun.	Lao Martirak.
9 Igante. 25	ELIZEN SAKR.
10 Astelehen.	s. Andreu Av.
11 Asteharte.	J. MARTINE.
12 Astizken.	s. Stanizlaz K.
13 Ostegun.	s. Didazi.
14 Ostirale.	s. Josafat.
15 Neskanegun.	sa Jertruda.
16 Igante. 26	s. Edmon.
17 Astelehen.	s. Gregori T.
18 Asteharte.	s. Odon.
19 Astizken.	sa Elisabet Ong
20 Ostegun.	s. Felis, Val.
21 Ostirale.	A. B. Eskentzia
22 Neskanegun.	sa Zezila.
23 Igante. 27	s. Klement.
24 Astelehen.	s. Johane Kh.
25 Asteharte.	sa Katalina.
26 Astizken.	s. Konrad.
27 Ostegun.	s. Virjilo.
28 Ostirale.	s. Maorino.
29 Neskanegun.	J. ANDREU, Ap.
30 Igante.	<i>Abentuko 1^a</i>

1 Astelehen.	s. Eloi.
2 Asteharte.	sa Bibiana.
3 Astizken.	s. Frantzes Zab.
4 Ostegun.	sa Barbara.
5 Ostirale.	s. Sabas.
6 Neskanegun.	s. Nikolas.
7 Igante.	<i>Abentuko 2^a</i>
8 Astelehen.	A. B. KONZEP.
9 Asteharte.	s. Jeronze.
10 Astizken.	sa Eulafia.
11 Ostegun.	s. Daniel.
12 Ostirale.	s. Melhiade
13 Neskanegun.	sa Luzia.
14 Igante.	<i>Abentuko 3^a.</i>
15 Astelehen.	s. Arzene.
16 Asteharte.	s. Mismein.
17 Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Eusebio.
18 Ostegun.	s. Lazaro.
19 Ostir. <i>IV Th. B.</i>	s. Gaziñ.
20 Nesk. <i>IV Th. B.</i>	s. Urbeñ.
21 Igante.	<i>Abentuko 4^a.</i>
22 Astelehen.	J. TOMAS, Ap.
23 Asteharte.	s. Ogorat.
24 Astizken.	sa Delfina.
25 Ostegun.	EGUBERRI.
26 Ostirale.	<i>J. Eztebe, M.</i>
27 Neskanegun.	J. JOHANE, Eb.
28 Igante.	<i>Haor Inozent.</i>
29 Astelehen.	s. Tomas, K.
30 Asteharte.	s. Manzuet.
31 Astizken.	s. Zilbestre.



OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an} .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an} .



MERKHATIAK ETA FEIRAK ELO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6ⁿ. — ATHAR-RATZEN : **m.**, astelehenez, amousetik ; **f.**, Phentekoste biharanenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3ⁿ *eta* aphilil. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OLOORUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1ⁿ ; *eta* buruila 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.

